

## ORAINA Vs ETORKIZUNA

Escrito por Aratz Losada

Sábado, 19 de Enero de 2013 12:02 - Actualizado Lunes, 21 de Enero de 2013 17:54

---

Lehen itzulia bukatzeko bi partida besterik falta ez direnean, Natra Oñati Aloña Mendi taldeak bigarren astez jarraian jokatuko du etxean. Gabonetako geldialdi luze horren ostean, Eneko Blancoren mutilek ez zuten arazorik izan Megacalzado Ardoi taldea mendean hartzeko eta oraingoan berriz ere, garaipen bat bilatu nahiko dute etxeko zaletuen aurrean. Gaur arratsaldean (18:00), UPV Alava taldea izango da bisitari Zubikoa kiroldegian. Egun, kategoria honetan maila handia ematen diarduten jokalaria (Garcia, Cavada, Xabo, Ceciaga...) etorkizun motz batean saskibaloizari izan daitezkeen (Martinez, Gacic, Malmanis, Bordignon...) jokalarien aurkako lehia interesgarria izango da gaurkoa; oraina vs etorkizuna.



Agian Zubikoa kiroldegiak bere 26 urtetako historia luzean, jaso dituen talenturik handienak jasoko ditu gaurko partiduan. Oraindik ere jokalaria oso gazteak izanagaitik ere, esperantza handia jarrita baitago aurrez aipaturiko jokalaria hauengan. UPV Alava taldea, Baskoniaren "harrobietako" bat da eta urtero uzten dizkio bizpahiru jokalaria gazte talde unibertsitarioari. Aurtengo denboraldian adibidez, Baskoniaren estrukturan bekatuak dauden bost jokalaria ikusi ahal dira UPV taldean. **Carlos Martinez, Sandro Gacic, Rinald Malmanis, Daniel Ndongala** eta

**Daniel Bordignon**

Lehenak 16 urte ditu eta 194 zm. eskolta da. Bigarrenak ere 16 urte ditu, Bosniarra da eta 198 zm altuerarekin antolatzaile postuan jokatzen du. Hirugarrena berriz, Letoniakoa da 16 urte ditu eta 203 zm. gizasemea izaki, pibot bezala jokatzen du. Laugarrena pixkat zaharragoa da. 19

## ORAINA Vs ETORKIZUNA

Escrito por Aratz Losada

Sábado, 19 de Enero de 2013 12:02 - Actualizado Lunes, 21 de Enero de 2013 17:54

---

urte, pibota eta 204 zm ditu. Eta dudarik gabe taldeko erreferente nagusia 16 urteko jokalaria brasildar bat da; **Daniel Bordignon (*Splitter berria askorentzat*)**. Oso jokalaria gaztea izanagaitik ere, iaz dagoeneko EBA mailan jokatu zuen eta orain dela 3 urte Bilbon jokatu zen Mini-Copan jokalaririk baliotsuenaren MVP saria jaso zuen. Beraz argi eta garbi ikusten da beraien bide naturala jarraitzen badute, eta betiere zortea lagun izaten badute, bat baino gehiago etorkizunean ACB-n edo batek daki non, izar izan daitezkeela.



## KALITATEAREN AURREAN SENDOTASUNA

Orain arte esandakoagaitik, zaila dirudi talentu aldetik partida hau aurrera atera ahal izatea. Horrekin ez dugu esan nahi Natra Oñatiko jokalariek talenturik ez dutenik, ezta gutxiagorik ere, baina egia esan partida hau esperientziaren, pausaren eta sailkapenak ematen duen egonkortasunaren aldetik planteatu beharra dago. Bakarkako lehiatan zaila izango da zerbait ateratzea, aspektu horietan dira eta aberatsak gasteiztarrak. Horregaitik taldeak daukan esperientzia eta partidak lasai jokatzeko duten gaitasuna, gaurko partiduko gakoetako bat izango da. Barruko jokoa erabili, errebotea ondo zaindu eta hortik aurrera ondo landutako jokaldiak burutu beharko dira. Eta guzti honi, Zubikoako harmailak eragiten duen presioa gehitu behar zaio. Gaur bereziki, inoiz baino gehiago geldituko da agerian azken aspektu hau. Izan ere, talde gasteiztarraren erreferenteak gazte mailako jokalaria dira eta oraindik ez daude ohituak presio horiekin jokatzera.

Bestelakoan, talde gorritxoari dagokionez, pasaden astetik hona ez da nobedaderik izango. Asier De la Iglesiak min hartuta jarraitzen du eta ez du jokatu baina gainontzeko jokalaria

## ORAINA Vs ETORKIZUNA

Escrito por Aratz Losada

Sábado, 19 de Enero de 2013 12:02 - Actualizado Lunes, 21 de Enero de 2013 17:54

---

guztiak Blancoren esanetara izango dira. Gaurkoan ere, Asierren hutsunea Ibai Osa pibot oñatiarrak beteko du.

## ARGAZKI LEHIAKETA

Gaurko partiduan, saskibaloia sailak **Sustrai fruta denda**ren babesari esker, argazki lehiaketa berezi bat egingo du. Partiduan zehar ateratako argazkiak jaso nahi dira. Gaia Saskibaloia delarik, Zubikoan bertan ateratako edozein argazki balioko du (partidukoa, harmailletako giroa, maskotarekin, jokalariekin ateratakoak...). Ondoren, urtarrilaren 26a baino lehen

[alonamendi.saskibaloia@gmail.com](mailto:alonamendi.saskibaloia@gmail.com)

helbidera bidali beharko dira argazkiak, bakoitzak bere datuak (izen abizenak eta telefono zenbakia) zehaztu beharko dituelarik. Epaimahai batek argazki onena hautatuko du eta Urtarrilaren 29an jakinaraziko da zein izan den irabazlea.

**Irabazleak bi pertsonentzako bono bat irabaziko du Gasteizen jokatu den Errege Kopa guztia doan ikusi ahal izateko!!**

## AUPA ALOÑA!!